

IKASTETXE LEHIAKETA

OREGAUARA etortzeak saria du zure ikastetxearentzat!

Aurten OREGAUAn, LHko 1. mailatik DBHko 4. mailara arteko ikasle guztiek jarduera kopuru bat osatuz Parte-hartze Ziurtagiria lortzen badute, beren ikastetxe eta ikasgelari sari bat irabazten lagunduko diete.

OINARRIAK

- Parte-hartzaileek jardueren plantila jaso ahal izango dute gunean sartzean.
- Jarduera bakoitza amaitzean, zigilua jasoko dute plantilan.
- Beharrezko zigilu kopurua betetzean, Parte-hartze Ziurtagiria jaso ahal izango dute. Ziurtagiria jasotzerakoan, Ikastetxearen eta Gelaren datuak eskatuko dira.
- Ez da izen-ematerik behar.

ERABAKIA

- Ekitaldia amaitzean, **zein Ikastetxek eta zein Gelek** (beste ikastetxe batekoa izan daiteke) Parte-hartze Ziurtagiririk gehien lortu duten zenbatuko da.

SARIAK

• Ikastetxe Saria

- Lehen Hezkuntzarako esperimentu-kit-a
- Bigarren Hezkuntzarako esperimentu-kit-a
- Kit-en erabilerarako laguntza

• Ikasgela Saria

Ikasle eta irakasleentzako irteera. Honako aukera hauetatik bat aukeratu ahal izango da. Data Ikastetxearen eta ikerketa taldearen artean adostuko da.

- Azkorriko bisita gidatua Geologia Ikerketa Taldearekin (DBHko gelentzat soilik).
- Itsasoko eoliko jarduera hondartzan. Aerosorgailu finkoen eta flotagarrien muntaketa eta proba.
- LEGO OWC jarduera Bilboko Ingeniaritza Eskolako olatu-tankean. Olatu-energiako gailu baten eraikuntza eta proba.